


Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

11/5/20 | 344

🌀	Jon Azpiroz eta Unai Igartua
🌀	Tolosaldean hizkuntza aniztasuna nagusi
🌀	Maiatzaren 29an, Araxesko X. Mendi Martxa
🌀	Zintzilik: Musika sarean
🌀	Kultura: Pott Keramika

txapin festa,
gazteek gazteentzako
antolatutako eguna



bozkatu



Jokin Bildarratz

Tolosa Tolosa
tolosa tolosa

ONENA EMATEKO GARAIA



NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZBK. 387



AMAIA ETXETXIA
BIOLOGA

DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA
NUTRIZIO BERREZIKETA
ARIKETA FISIKOA
HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,
5 B - 2ª ESKUBIA
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO
HITZORDUA
679 934 888



TEKNOLOGIA EZ DA AMESTEKO EDUKITZEKO BAIZIK

CITROËN GRAND C4 PICASSO FIRST VTI **14.940€** *ITK

AIRE EGOKTUA, ORDENAGAILUA, BAS, ATZERAPD ISPIELIA ETA ASR, IRTEERA ALDANIKESUE
TARAPD LAQUINTZA, DIREKZIO-SISTEMA LAQUINGARRA, ABIAZURA ERREGULATZALEA, ISPILU
ELEKTRIKO TERMIKOA, ANJULU HANDEKO HAZETAKO PANORAMIKOA, ANABUZTEKO FRENO
ELEKTRIKOA, 4 BOTZORALDUN IRABAZI-CD MP3.



ETA GANERA,
CITROËN C3 PICASSO VTI
10.600€ *ITK

KONTSUMO MOTA (L/100 Km) / CO2 EMISIOA (g/Km)
GRAND PICASSO: 5,0-7,0 / 130-177, C3 PICASSO:
4,6-6,4 / 119-149

*ITK gordinerak Grand C4 Picasso VTI 120 Fvt, C3 Picasso VTI 95 Atzerapd (argiak, garrasi eta ibilgailuak barne) bitartean kalkulatuak eta lekuaren partekatuta. Beharrezko gutxiarik. Modeloak Grand C4 Picasso Exclusive Plus eta C3 Picasso Exclusive Park Exklusio.



IROVI, S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIAGUNEA Z/G TEL: 943 651 842 ANOETA/TOLOSA



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpuru, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostazu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia,
 Juankar Arregi
 Zuzentzailea: Nora Olano
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOITIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA
 Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
 diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia:

Txapin Festa, gazteek gazteentzako antolatutako eguna

Gazteen arteko harremanak sakontzea helburu duen Txapin Festa egingo da maiatzak 21ean Tolosan. Egun horri begirako antolaketa lanetan dabilta Estanis Arsuaga, Manex Izagirre, Iker Varela, Unai Olalde, Garazi Jauregi eta Ane Etxebeste eta gazteak beren lokal, koadrila eta tabernetatik atera eta elkarren artean nahastuz harremanak sakontzea helburua duen egun osoko egitaraua prestatu dute.

8-11. orrialdeak

Alex Perurena bertsozale amorratua Ikaztegietan jaio zen 1964an, duela urte dezente Tolosan bizi bada ere. Ogibidez karmioilaria, bolada luzetan etxetik kanpo European barrena ibili behar izaten du.

Alex Perurena

14-16. orrialdeak

	Iritzien leihoa: Jon Azpiroz eta Unai Igartua	4-5
	Normalizazioa: Tolosaldean hizkuntza aniztasuna nagusi	6-7
	Eskualdeko albisteak: Maiatzaren 29an, Araxesko X. Mendi Martxa	12-13
	Zintzilik: Musika sarean	17
	Kultura: Pott Keramika: "Gure gizartea koloreztatu nahi dugu"	18-19



Jon Azpiroz
Bedaioiko Artubi Elkarteko kidea

4 Bedaio bizirik dugu leloa. Hauteskunde garaiko leloa litzateke baina ez da halakoa. Duela 6 bat urte ateratako kamiseta batzuetan ageri zen. Bedaio bizirik. Zergatik? Noizpait jendetsua izan zen Aralar azpiko landa inguruko herri txiki eta xumea hiltzear baino itzaltzen zebilela uste zen. Atentziorik ematen ez zitzaion gunea zen Bedaio, ezezaguna zen askorentzat eta pobrea besterentzat.

Gaur herritarron lanari esker, pobre jarraitzen badu ere iada ez da hain ezezaguna. Abaetxe taberna ere badugu eta Tolosari eta kanpotar desberdinak ageri dira Bedaio ezagutzera eta inguruaz disfrutatzen, baita errepikatu ere.

Gaur harro esan dezakegu Bedaio bizirik. Jenerazio oso bat joan zen Bedaiotik inguruko herritara bizitzera, bertan ezin baitzen etxerik eraiki. Baina ez zuten herri xumea ahaztu eta gertu sentitu eta bizitu izan dute. Orain bertan geratu direnak, gogor eta arazo handiekin, etxeak berritzen eta urteak eta urteak baimenak bilatzen aritu ondoren, ematen ari dira lurrari bere fruitua. Azken ha-

Bedaio bizirik dugu leloa

mar urteotan izan den gorakadarik handiena suertatuko da aurtengo Bedaion eta zorte ona bada, lau izar berri piztuko dira Aralarreko inguru txiki honetan. Zorionak guztio!!!!

Gertaera honek badu zer pentsatzerik ezta? Bada jendea herri honetan sinistu eta bizitu nahi duena, inguru honek merezi duela.

Negua izaten da gogorra baina udaberriak azaltzen duen indarrak dena arintzen du. Hemen bizitzeko merezi du, lasaia, sana, erlajantea eta ingurugiroaz gozatzeko eta ulertzen jakiteko leku aproposa.

Urruti dagoela diote batzuk, urruti nondik? Beste herri bat bezala dago urruti, distantziak erlatiboak dira beti. Oresa, Lizartza, Berrobi, Leitza, Berastegi... urruti al daude? Nondik? Zer egiten du herri bat urruti dagoela esateko?

Bai, Bedaio Tolosatik gertuago badago ere, lan handia egin da azken urte hauetan oraindik ere urruti jarraitzen du. Gutxi gara eta urruti gaude eta kosta egiten da hurbiltzea. Baina Bedaio lan eta lan ari da urruntasun hori txikitzeko asmotan.

Hauteskundeak iritsi dira, iada denak ari dira han eta hemen moka.

Bedaion beharren zerrenda luzea dago eta ez da lekua hura azaltzeko baina Tolosari eskatuko nioke egindakoaz ohartzeko, zenbat urte, zenbat ideia eta zenbat bilera. Tolosari eskatuko nioke, inplikazio gehiago eta ez dut nahi zentzu txarrean hartzea noski. Inplikazio gehiago, determinazio gehiago, auzotan bizi gara eta zentroa baina behar handiagoak

eta oinarrizkoagoak ditugu eta horregatik determinazio handiago behar du. Tolosarrak garelako eta maila berdinekoak behar dugulako izan.

Tolosari esango diot esparru berdea duela, esparru berde handi eta zabala, 12km² gunere berdea, eta hala da, garai batean Normandiatik 5.000 sagarrondo ekarri zirela, baina Bedaio gaur egun Aralar Parke Naturaleko zati da, Bedaioko basoetan suertatzen den misterioa begitatzeko eta egunsentian eta ilunabarrean zorte txiki bat izanik animalia basati anitza ikus daiteke. Zaldiz zein mendi bizikletaz goiz pasa politak egin daitezke inguruaz disfrutatuz, nahiz eta Inpernuko erreka osatu iturrietan paradatxo bat egin ur fresko eta gardenetan freskatuz, eta bide batez, Mariren bizileku eta San Inazio bideak zeharkatzen dituen Aralarreko mendien handitasun eta pakeaz ohartzuz. Por zertor, ekainaren 12an Bedaio Mendi eta BTT martxako beste edizio bat izango dugu.

Tolosari eskatuko nioke, Bedaiok zabaltzen duen bizi nahia, ilusioa, gogoia eta indarra norabide berdinean aprobetxatzeko eta bategiteko. Azaltzen diren ideiak eta gaiak, aztertze denbora azkartzeko, bategitea, baikorak izatea, hobekuntzak azaltzea, ikertu, tratatu, proposamenak egitea, bateginik eta elkarlanean.

Tolosari eskatuko nioke, egindako bidea zabaltzea eta hobetzea, kurbak eta maldak leuntzea, eta zuloak partxeatu baino berritzea, beharreko gogoia, ilusioa eta herrimentak jarriaz, herritarrekin eta herriarentzako.

Zorte on guztio!



Hauteskundeak, eta gero?

Beste batzuk ez dute horrelako arazorik, auskalo nondik ekarritako hautagaiekin betetzen dituzten beraien zerrendak, (PP-k % 50-a kanpoko jendearekin bete du), eta ondoren inongo eskrupulurik gabe gure herrien jabe egiten dira.


Urte askotan zehar herri askotan jendeak nahi ez duen gidaritzza izan du, batzuetan lotsagarria izateraino. Eta garrantzi izugarria du honek, zortzi urtetan herriak bide ezberdin ugari har baititzake, herri mugimenduan, eraikuntzan, euskararen... Sarri aurrera pausurik eza baino atzera pausuak eman daitezke gainera, herria ia jabetu gabe.

Aro berri baten hasieran gaudela argi dagoela deritzot. Kezka handia dut etorkizunean zer gerta daitekeen, eta hau ez dut esaten bozka gehiago edo gutxiago nor jasoko dituen begiratzerakoan, etorkizuneko euskaldunak Euskal Herriaren egoera nola biziko duen ezjakintasuna dudalako baidzik. Gazteak, eta ez gazteak, beraien itxuraz, futbolaz, musikaz, drogez aparte, Euskal Herriaren, edo euskararen gaineko kontzientzia bera izan al dezakete? Agian gehiago? Agian gutxiago? Nola egongo gara hemen 20 urtera? Ezinezkoa da aurreikustea, eta eskerrak gainera.

Oraingo apustua sekulakoa iruditzen zait, 98an egin zena baino are apustu gogo-

rragoa, aldekoak eta kontra-koak izan ditu, orain ditu, eta izango ditu. Milaka momentu txar, oztopo eta egoera kritiko izango ditu prozesu honek, ikusi besterik ez dago azken hilabeteetako Espainiako gobernuaren jarrera, azken finean beraiek dituzte polizia, arma, epaile eta legediak, beraz, Euskal herriak gustatzen ez zaien bideren bat hartzeko arriskua ikusten badute bat-batean aurkituko dute aitzakiaren bat guztia zapuzteko.

Hala ere baikorrak izan behar dugu, egia da lehen banandurik geunden jende asko elkartu egin garelara, eta agian konturatu gara ez geundela bata bestearengatik hain urrun, lehen begiradan behintzat, gero denborak jarriko gaitu bakoitza bere lekuan. Egia da ere lehen politikan sartuegia ez zegoen jende asko inplikatu dela proiektuan eta hau ez da txorakeria bat.

Igande interesgarria izango da beraz maiatzaren 22a, ez ohiko (azken 10 urtetan ez da horrelako kasurik eman) hauteskundeak direla eta, interesgarria eta neketsua ere bai ziurrenik. Ikusiko dugu zein emaitza ematen duen, baina badakizue hor ez dela amaitzen dena, oraindik asko dago egiteko, etorkizunak (ni ere bertan sartzen naiz) ezin du axolagabeherian erori, hau ez da emaitza hobeak edo okerragoak lortzea bakarrik. Euskal Herriak gehiago merezi du. 



Unai Igartua

Eneko Aritzaren lagunak taldeko kidea

Azkenik iritsi da bozkatzeko eguna, maiatzaren 22an Udal eta Foru Hauteskundeak izango dira Euskal Herriaren hegoaldean, eta bertan zuzenki edo zeharka guztiok izango dugu bozkatzeko aukera hamar urteren ondoren. Hala ere ezin da hutsean utzi eta gogoratu behar da hau ez dela hemen amaitu, batzuk ilegal jarraitzen baitute oraindik eta ezin dute hautagai gisa aurkeztu beraien herrietan "kontaminatuak" daudelakoan. Jada jende asko dago X-a gainean duela, arrazoi bat edo bestearengatik, eta horrek arazoak ekartzen ditu herri askotan.

Tolosaldean hizku

Ikuspegik -Immigrazioaren Euskal Behatokia- Amarauna, Unesco Etxearekin batera "Hizkuntzak eta Immigrazioa" lanean hizkuntza aniztasunaren berri ematen dute. Tolosaldeko immigrazio teknikariak lana osatu eta eskualdeari erreferentzia eginez, gure inguruan 60 hizkuntza baino gehiago hitz egiten direla jasota geratu da.

Naiara Roldán de Aránguiz

Datorren maiatzaren 21ean, larunbatean, Aniztasun Kulturalaren Nazioarteko Eguna ospatuko da. Aipatu data aitzaki hartuta Tolosaldeko biztanleen aniztasunari erreferentzia egin nahi izan dio Galtzaundik.

Kultura eta hizkuntza heterogeneotasuna gaur egungo immigrazioaren ezaugarri bereizgarria da. Horrenbestez, Kristina Morales immigrazio teknikariak zehazten duen modura "harrera-gizarteak arreta berezia jarri behar du egoera berri horretan". Hone-la, "aniztasun-eremu berrieta-

ra irekita egotea eta hizkuntza eta kultura desberdintasunei ekiteko modu berriak funtsezko balioak dira immigrazioaren desafiari aurre egiteko, erronka aberasgarri gisa".

Hizkuntza aniztasuna aberastasunaren ideiarekin erreferentzia dela zalantzarik ez, baina Aniztasun Kulturalaren Nazioarteko Eguna harira ideiak indar berezia hartzen du. Horrela zehazten dute immigrazio adituek: "euskal gizartean, aniztasuna berez aberatsa delako ideia zabaldu nahi da; hizkuntza guztiak potentzialki berdina direla, nortasunari balioa ematen diotela eta elkar onesteak gizartea eta gizarte-elkarbizitza aberastea sustatuko duela".

Etorkinek hizkuntzen inguruan bizi dituzten egoerek errealitate ezberdinak sortzen ditu eurengan. Ikerketak aipatu moduan Euskal Herrian gaztelania ikastea da etorkinentzat helburu behinena, hala ere, bertako kulturaz jabeturik euskara ikasten duten etorkinak ere badira eta horrek gainera benetako giltza ematen die integratzen laguntzeko.

Bestetik, askok jatorrizko lurraldeetako hizkuntza ez-ofizialetan hitz egiteko gaitasuna izanda, hizkuntzarekiko jarrera ezberdinak dituzte: beren hiz-



BENTA ALDEA

JATETXEA

TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN

SANZ

arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa

untza aniztasuna nagusi

kuntzaren balioa aitortzea eta aldarrikatzea, ofizialari baino garrantzi gutxiago ematea eta baita euren hizkuntza ezkutatzea ere. Izan ere, Kristina Moralesek jakinarazi moduan etorkin askori harrigarria iruditzen zaio jatorrizko hizkuntza horiekiko Tolosaldeko bizilagunek interesa erakustea, askotan euren herrietan bertan hizkuntza-ofizial horien nagusitasunak bazterketara alboratu dituenean.

Euskara integraziorako ardatz izanda, eskualdean atzerriko hizkuntza horien eta euskararen arteko uztarketa jarduerak antolatzen hasiak dira. Adibide bat, "Pizgailu magikoa" ipuinaren kontaketa arabieraz eta euskaraz eskaintzearena. Ekimen arrakastatsu hau dagoeneko Tolosan, Alegian, Anoetan eta Ibarran ospatu da. Hurrengo aukera ekainean Villabonako aniztasun astearen ospakizunaren baitan egongo da.

Datuak aztertuta, eroldaren arabera Tolosaldean 53 nazionalitate ezberdineko pertsonak bizi dira; 14 nazionalitate Europar Batasunekoak eta gainerako 39ak kanpokoak. Honako hau kontutan hartuta, guztira beraz, estimazioa eginez 60 hizkuntzatik gora hitz egiten ditu Tolosaldeko biztanleriak. Ondoko taulan ikusgai dira atzerritarren nazionalitatea kontutan harturik. (Hala ere, kontutan hartu behar da pertsona askok bertako nazionalitatea eskuratuta izango dutenez datuak ez direla jasota geratuko).

Tolosaldean hitz egiten diren balizko hizkuntzak:

Amerikakoak: aimara, guaranie-
ra, maputxea, kitxua, gazte-
lera eta ingelesa.

Europakoak: alemana, bulga-
riera, erromintxela, erruma-
niera, frantsesa, galiziera,
ingelesa, gaelikoa, italiara,
kalmykera, katalana, neder-
landera, poloniera, portu-
gesa, serbiera, suediera eta
ukraniera.

Afrikakoak: Marokoko arabie-
rak, tamazight, frantsesa,

Aljeriako arabiera, Saharako arabiera, balantera, mandikera, pularera, serere-sinera, wolofera, fantera, edoera, hausa, igboera, Nigeriako ingeles kreolera, jorubera, dualera, fangera, bubiera, ngumbiera, fulera, sonikera, xironga, swahilia, chichewa, shonera eta Cabo Verdeko portugez kreolera.

Asiako hizkuntzak: punjabera, pashtoera, urdua, saraikiera, hindia, kantonera, txinera -mandarinera, koreera, persiera, kurdoa, indonesiera, thailandiarra, mongoliera.



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxe: 943 674 113



errotatxo
okindegia

Andia kalea, 3
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A
Tel.: 943 671 038

txapin festa, gazteek gazteentzako antolatutako eguna

Gazteen arteko harremanak sakontzea helburu duen Txapin Festa egingo da maiatzak 21ean Tolosan. Egun horri begirako antolaketa lanetan dabilta Estanis Arsuaga, Manex Izagirre, Iker Varela, Unai Olalde, Garazi Jauregi eta Ane Etxebeste eta gazteak beren lokal, koadrila eta tabernetatik atera eta elkarren artean nahastuz harremanak sakontzea helburua duen egun osoko egitaraua prestatu dute.

Igor Mujika



Galtzaundi 344
11ko maiatzak 20

Helburu berarekin gazteak koadrilaka baino bazkariko txartela entregatzearekin bat antolatzaileek banatuko dituzten kamiseten kolorearen arabera bilduko dira. Kolore bereko kamisetak dituztenek talde bezala funtzionatuko dute Txapin Festan egingo diren jokuetan nahiz eguna aurrera ateratzeko egin beharko dituzten lan ezberdinetan. "Ez dago beraz koadrilarekin etorri beharrik egun honetan parte hartzeko", talde motorreko kideek esan digutenez.

Beraien hitzetan, "gazteon parte hartzea bultzatzea eta gazteok guk antolatuta gure ideiak gure erara aurrera eramateko gai garela erakusten dugu egun honekin". Horren erakusle, 100 gazte baino gehiago elkartzeara espero dute 14:30ean Plaza Berrian egingo duten bazkarian.

Txapin Festa aurrera ateratzeko iaz hasi ziren talde mo-

torreko kideak elkarren artean hitz egiten. Inauterien bueltan egitaraua adostu zuten eta, jarraian, dena lotzen hasi ziren: bati kartela egiteko esan, besteari... Izan ere, auzolanean eraikitako eguna da Txapin Festa. "Gko galeriak, bazkaria egin behar dutenek, musika taldeek,... egun horretan lan egin behar dute eta ez dute ezer kobratuko". Tolosako Alde Zaharreko tabernek ere hartu-

ko dute parte Txapin Festan. 01:00ak eta 03:00ak artean eskaintza bereziak egingo dituzte eta, 00:30etatik aurrera, DJ-ak ariko dira Eguzki, Kikara, Cafe Iruña, Ieltxu, Sugar-sugar eta Raku tabernetan.

Autokritikaren ondorio

Txapin Festa Tolosako gazteek egindako autokritikaren ondorioa da, talde motorreko kideek azaldu digutenez. "Gaz-

TXAPINFESTA 2011
Maiatzak 21

11:00 11:00an gure kalgira musika legezkoa. Derrazabako ikasleak hasia.
13:00 13:00an baita jantzeria igarondo pareta itenda.
14:30 14:30an baita jantzeria igarondo pareta itenda.
16:30 16:30an baita jantzeria igarondo pareta itenda.
17:00 17:00an baita jantzeria igarondo pareta itenda.
19:30 19:30an baita jantzeria igarondo pareta itenda.
21:30 21:30an baita jantzeria igarondo pareta itenda.
22:30 22:30an baita jantzeria igarondo pareta itenda.
00:30 00:30an baita jantzeria igarondo pareta itenda.

12€
Billetea
Billetea
Billetea

Eguzki Jokin - Kikara Purruza
Cafe Iruña Nelson - Ieltxu Teul
Sugar-Sugar Andoni DJ - Bituzte Dantzarik
Raku But

01:00 01:00an baita jantzeria igarondo pareta itenda. - 03:00 03:00an baita jantzeria igarondo pareta itenda.

Ametza
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor
eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa

Zumardi
SEGURAS BILBAO

Aholkularitza integrala

Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin Eceizabarrena

Instalazio erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK

Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



teok bakoitza bere koadrila, talde, lokal edo tabernetan elkartzen ginen. Ez ginen koadrilen artean gehiegi nahas-

ten. Horren aurrean, lokal eta tabernetatik atera eta gure artean elkartzea eta elkar ezagutzea jarri genuen helburu”.

Aurtengoa Txapin Festaren laugarren edizioa izango da eta talde motorreko kideek esplikatu digutenez, “gazteon artean nahastu eta elkartzeko interesa bazegoela ikusi dugu. Lehen jende asko bistaz ezagutzen genuen. Orain, harremana dugu gure artean”.

Hausnarketa horretan sakondu nahian, Galtzaundik lokalen funtzionamenduaren inguruan eta Tolosan izandako esperientzia ezberdinei buruz galdetu die gazte hauei eta, beraien iritzian, “lokalak ohitura bilakatu dira. Lokalik ez duzunean, tabernan edo kalean pasatzen dituzu orduak baina lokal batean sartzen zarenean, lokala zure lehen edo bigarren

etxea bilakatzen da. Hilero diru bat jartzen duzu eta, ondorioz, amortizatu egin behar duzu. Lokala zure gustura jartzeko orduan eta ordu gehiago pasa, orduan eta gehiago ixten zara bertara”.

Jakinarazi digutenez, Tolosan gazteek euren nahietarako erabiltzen dituzten 20 lokal baino gehiago daude eta, batzuk, kapritxora prestatzen ordu asko pasa ostean, “oso ondo daude”. Beraien esanetan, lokal batzuen eta besteen arteko diferentziarik handiena, bertan biltzen direnen arteko urte diferentzia da. “Batzuk ahalmen ekonomikoa dute. Besteek ez dute horrenbeste-koa. Ondorioz, Play Station 2



zu zara aldaketaren giltza
bozkatu bildu!



edo 3 izango duzu, telebistak pulgada gehiago edo gutxiago izango ditu,...". Lokal baten inguruan biltzen direnek beren proiektua gauzaten dute bertan, frontenis txapelketak, bizikleta martxak,... antolatuz. Proiektua, ordea, lokal horretako kideengana zuzentzen da normalean. Eta, hain justu, hori botatzen dute faltan Tolosako gazte hauek: herriko talde ezberdinak elkartu eta elkarrekin gauzak egiteko gunea.

Inpernu

Ildo horretan, Inpernurekin izandako esperientzia dute gogoan. Inpernu eta Txapin Festa bi gauza ezberdin direla

argitu ostean, "Inpernuk lau hilabete inguru iraun zuen arren, aurrera egiteko indarra genuela erakutsi genuen Tolosako gazteok. Iturri hori ez bazuten moztu, gaur egun zertan ariko ote ginen pentsatzen dugu sarri. Gazteok bilduta ideia gehiegi genituela ikusi zuten, ordea, eta moztu egin ziguten egitasmo hura. Oso proiektu handia eta zabalaren", aitortu dute.

Bide beretik jarraituz, halako gune batek herriko gazteen arteko harremanak lantzen dituela argi dute. "Ez dugu esango lokalak existitzeari utziko ziotenik baina lokale-tako jendea gehiago azalduko zen eta herrian gazteen artean

harreman handiagoa egongo zen. Izan ere, egun gazteok ez dugu leku bat non elkartu. Txapin festa ere kalean ospatzen dugu, ez dugulako guztiok batzen gaituen gune bat. Inpernuk hutsune hori bete zuen lau hilabete horietan. Batzarretan 20 gazte baino gehiago biltzera iritsi ginen".

Txapin Festa egun batera mugatzen den ekimena da. Egun honi begirako egitaraua bultzatzeko talde motorrean dabilzanek argi dute, ordea, Tolosan halako ekimen gehiago bultzatu beharko liratekeela gazteen arteko harremanak garatzeko. Gustoko bidean aldaparik ez, dio esaera zaharrak.

Xirimiri

Txokolategia
Xabier Izagirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA



Argi lanak
Iluminazioa
Antenak

lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

HEZIKETA ZIKLOAK

GUK LA SALLE BERROZPE ETA ZUK?

Ate Irekiak

Maiatzak 21

10:00

LaSalle Berrozpe
LISB
Andoain

www.lasalleberrozpe.com




Lehenengoz Euskal Mendi Federazioko iraupen luzeko martxen zirkuituan

Maiatzaren 29an, Araxesko X. Mendi Martxa

Maiatzaren 29an, igandean, hamargarren urtez Araxesko Mendi Martxa abian jarriko da. Bi urtez behin ospatutako herri mailako mendi martxari aurtengoan bultzada eman nahi izan diote antolatzaileek, Euskal Mendizale Federazioko iraupen luzeko martxa zirkuituan sartuz. Amaroako Mendi Taldeak hartu du bere gain lehenengoz antolakuntza.

Erredakzioa



Araxeskoa, Fortunako Mendi Ibilaldia, Aizkardiko Ibilaldia edo Gasteiz MT Mendi Ibilaldi mitikoen zirkuituaren baitan kokatu da. Hori dela eta antolatzaileek ondorengoa zehazten dute: "lorpen honekin gure mendi martxa Euskal Herriko mendizale guztiengana iristea lortuko dugulakoan gaude eta honen ondorioz mendizale gehiago erakartzeko aukera polita eman diezaguke zerrenda ofizial horretan kokaturik egoteak".

Maiatzaren azken igandean lehiatuko den Araxesko Mendi

Martxak 42 kilometroko luzera 2.000 metroko desnibela eta gutxi gorabehera 10 orduko iraupena izango du Amartz, Ollaun, Altzo, Otsabio, Añi, Zarate, Azkarate, Arribe/Atallo, Santa Barbara, Musaio, Ulizar, Uli, Gaztelu eta Leaburu bezalako paraje naturalak zeharkatuz.

Araxes ibaiaren arroa jarraituz doan martxa honek Tolosako Amartz Auzoan izango du irteera, maiatzaren 29an, goizeko 07.00etan. Era mailakatuan burutuko da irteera. Izena emateko orduan ordea bi bide zabaldu ditu Amartzoko Mendi Taldeak. www.zirkuitoa.com webgunearen bitartez izena emateko aukera egongo da maiatzaren 28a bitartean, eta bestetik, egunean bertan irteera gunean ere -Amarotz auzoan- aukera izango dute parte hartzaileek izena emateko. Izena ematea dohainekoa izango da.

Araxesko X. Mendi Martxaren aurreko bederatzi edizioak Amartzoko Guraso Elkarrean antolatu baditu ere, aurtengoan Amartzoko Mendi Taldeak hartu du lekukoa. Izan ere, Amartzoko Mendi Taldea sortu berri den erakundea da Amartz Kirol Elkartearen barruan; auzokide,

kirol elkarteko eta guraso elkarteko kideen artean aurrera eramandakoa. 2010eko urtarrilean sortutako mendizale elkarte da eta bere helburua Tolosako Amartz auzuneko bizilagun mendizaleei federatzeko erraztasunak eta urtean zeharreko hainbat mendi-ekintza eskaintzea da, tartean Araxesko Mendi Martxa.

Ibilbidean parte hartu ahal izateko derrigorrezkoa da 14 urte beteak izatea eta kontutan hartu beharko da ibilbide herrikoia izanik, kirol eta kultur helburuak dituela xedetaz; mendizaletasuna bultzatzea eta Araxes ibaiaren inguruko leku eta ibilbideak erakustea, betiere natura erabat errespetatuz.

Parte hartzaile bakoitzak txartel pertsonalizatua izango du eta ezarritako kontrol bakoitzetik pasatzerakoan balioztatu beharko du, zigilua lortuz. Betiere, kontutan izan beharko dute mendizaleek kontrol horietatik igarotzeko orduan aurretik adierazitako gutxieneko eta gehieneko denbora-tartean pasa beharko direla.

Ibilbidea balizaturik egongo da, plastikozko zintez bidez markaturik. Bestetik, janari eta edarien inguruan parte-har-

tzaileei beharrezkoak diren elikagai eta edariak eramatea gomendatzen bazaie ere, antolakuntzak Mikelete Etxean (Zarate), Arribe-Atallo, Gorriti-Musaio eta Uliko kontroletan gutxieneko hornidura jarriko du ibiltarien eskura.

Mendizaleek hamaika ordu izango dituzte gehienez proba betetzeko; ibilbidean zehar parte-hartzailearen batek proba utziz gero antolakuntzako kideei jakinarazi behako die. Behin proba amaituta, helmuga eskuratuta, egindako esfortzuak bere ordaina izango du, diploma banatuko zaie hamaika orduren bueltan helmuga zeharkatu dutenei. Honetaz gain, mendiko materiala ere zozketagai izango da proba amaitu duten parte hartzaileen artean.

Informazio gehiago behar izanez gero www.zirkuitoa.com webgunean, amartzkomendielkartea@hotmail.com helbide elektronikoan edo 615 721 202 telefono zenbakian -lanegunetan 19.00-21.00 bitartean- eskuratu daiteke. Ibilbide birtuala <http://sites.google.com/site/amarozmendis> webgunean ikusgai dago irudikatu nahi duen ororentzat eskura. 

ZALBIDE
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egunero.


Zalbide baseria - Abaltrisketa
Tel: 943 652 176



SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA



kutxa

shanti
kirolak

Rondilla, 11 bis
Tel.: 943 674 074
Tolosa

Bertsozale amorratua, "saltsa guztien perrexila"

Alex Perurena

"Urteak pasata bertsoei balio gehiago ematen diegu"

Alex Perurena bertsozale amorratua Ikaztegietan jaio zen 1964an, duela urte dezente Tolosan bizi bada ere. Ogibidez kamioilaria, bolada luzetan etxetik kanpo Europan barrena ibili behar izaten du. Etxetik urrun dagoen momentuetan, herriminak jota euskal kantutegi eta bertsoariei berebiziko garrantzia ematen die. Lurre Elkarteko kide eta Bertsozale Elkarteko partaide ere bada; bertsozaritza eta euskal kulturarekin harremana duten ekimenetan beti laguntzeko prest.

Naiara Roldán de Aránguiz

Noiztik duzu gustuko bertsozaritza?

Betidanik ez, gerora sortu zait. Mutil-koxkorra nintzela gurasoekin Donostiara, Astoria-ra, joaten nintzen, omenaldiak izaten ziren bertan. Gogoan dut etxeok "radiokaseta" erosi eta eserlekutik grabatzen ibiltzen zirela. Nik momentuan ez nekien ezta zer zen.

15-20 urterekin ez da bertso-

laritzarekiko zaletasun gehiegirik izaten; bestelako gauzak izaten dira buruan, normalean gertaerak onak izaten dira, 20 urterekin ez da ohikoa esperientzia txarrik izatea. Behin 35 urtetik gora gertakari txarrik inguratzen hasten dira... Nik uste, orduan, bertso berdin horiei balio gehiago ematen diegula. Orain dela 20 urte entzundako bertso horiek berriro entzun eta

bestelako esanahia ematen zaie. Zer esanik ez 60 urterekin zer ulertuko dugun...

Bertsozale Elkarteko partaide nola egin zinen kontatuko?

Etxeok oparitu zidaten txartela. Beti izan dut gogoia baina lana tarteko ezinezkoa izan dut. Kamioilaria naizenez, asteburu asko kanpoan, Europa mailan, pasa behar izan ditut. 2007an



laneko orduak mugatu zizkigutenean denbora libre dezente izaten hasi nintzen, asteburuak ere libre, eta hori ikusita etxekoek txartela oparitu zidaten. Elkartera jo nuen, bertako inor ez nuen ezagutzen baina segituan zer egina eskaini zidaten.

Zer aurkitu eta zer jaso duzue bertan?

Izugarrizko giroa. Han pertsona askok borondatez egindako grabazio asko entzun eta ikusi ditut. Gipuzkoako Bertsozale Elkartean grabaketa sare bat dago. Bertan aritzen naiz, orain da garaia nik egindako grabazioak jendeak entzun eta ikusteko. Ahal dudanean horretan aritzen naiz. Internet bidez ikustea badago. Bertso saio horiek jasota egotea polita da.

Partaide zaren lurre Elkartea Tolosa mailan bertsozaleentzat erreferentzia bihurtu da...

2007an lurre Elkarteko Zuzendaritzan nengoela bertso-saioak antolatzen hasi ginen. Elkarreak Tolosako herritarrentzat ezer antolatzen ez zuela ikusirik, euskararekin loturarik ez zegoela ikusirik, bertsozalea nintzela aipatu eta bertso-afari bat antolatzeko ideia sortu zen. Geroa izugarrizko arrakasta izan du; aurtengoa bosgarren urtea izango da. Urriaren 22an ospatuko da eta bertan izango dira Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano eta Jon Maia. Erreferentziako bertsolariak ekartzen ahalegindu gara; Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso ere pasa dira bertatik. Horretan Anjel Mari Peñagarikanok asko laguntzen dit.

Elkartekideen erdia baino zerbait gutxiago erdalduna da eta bertso kontuetan hasi ginean, bertso-afaria ospatzeko garaian haiek laguntzea, beste edozeinek bezala ordaintzea, kexarik ez izatea, kontrako hitzik ez izatea, niretzako gauza ederra izan da. Bakoitzak bere ideiak eta gogoetak izango ditu bertsolaritzaren inguruan, baina nahiz ulertu ez, aurka ez izatea gauza handia da.

Elkarteko bertso afariaz aparte Hirukidek ere bertan ospatzen du bere bertso-afaria, eta aurten Las Korainek ere lehen bertso-afaria antolatu du. Elkartea irekita dago bertsolaritzarekin harremana duten ekitaldietzat. Bertso saioa antolatzera koan bertaratuak duten asebetetzea ikusita, boluntario lanetan aritzen garenak gustura



Tolosa Bit
Informazioa Zerbaitak
Ordinagailuak eta konputatzaileak
Egitea eta periferikarretarako
Mantentzeak

Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

IREKI BIDEA EZKERRARI

BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI

Bozkatu
aralar



gelditzen gara, horrek betetzen du pertsona.

Txapelketak ala bestelako saioak? Zein gustukoen?

Giroa bertsolariak egiten du bertan dagoen jende motaren arabera. Bertso-afari batean oso ondo pasatzen dut; ni gai-jartzaille aritzen naizenean, ordea, ez horren ondo, urduritasuna dela medio. Horrekin batera BECen sortutako giroa ere izugarria da; urte batzuk baziren horrelako final batera joan gabe eta joan nintzen garaian izugarritzko zoramena izan zen. Oso ondo pasa nuen, ez zitzaidan luze ezta gutxiago ere egin. Eskatu moduan, Tolosako autobusaren antolakuntza ere eraman nuen gainera.

Beste aldetik ere, Tolosako ikastetxeek Leidorren jaialdia antolatzen dutenean, umeak taula gainean jarri eta -4., 5. eta 6. mailako ikasleak- bertso-idatzi horiek entzutea zoragarria da.

Iurre elkarteak gainera bertso-paper lehiaketa antolatzen du. Aurten hirugarrena ospatuko da, Tolosako ikastetxeekin batera. Sari banaketa ekainean izango da. Umeek idatzitakoa abesten

dutenean niri izugarritzko betekada ematen dit.

Horregatik, bertso saio mota ezberdinak bereiztea zaila da; bakoitzak bere grazia izaten du.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa abiatu berri da, zer nolako jarraipena burutzen ari zara?

Antolakuntzan ez nago baina laguntza behar izanez gero deitzen didate; Oroitz Azurmendik, Gipuzkoako Bertsozale Elkarte arduradun buruak, badaki edozer gauzatarako hor nagoela. Nire lanarekin askotan ezin dut nahi adina lagundu. Eskua behar badute nik botako diet, dudarik ez egin.

Eskualdean bi saio ospatuko dira, bata Alegian (maiatzaren 14an ospatutakoa) eta hurrengoa Amezketan (maiatzaren 28an), pozgarria al da?

Oso ideia ona da herrietara zabaltzea. Tolosan ere finalerdietako bat izango dugu azaroan. Bertsozale Elkarte oso jende atsegina dago, buruz eta "tajuz" ari da lanean.

Eskualdeko bertsolariak era berezi batean jarraitzen al dituzu?

Irakasle izan direnak bai. Ho-

rren adibide dira Unai Muñoa, Aitor Mendiluze, Bixente Gorostidi eta Amaia Agirre. Iurre elkarte-ko bertso-paper lehiaketan laguntzen didate eta hartu-eman gehiago dut haiekin. Lotura badugu, harreman oso ona...

Bertsoekiko zaletasuna etxekoekin uztartzea erraza al da?

Etxekoek hasieran gustura hartu zuten, orain aspertzen hasi direla esaten ari dira... Saiatzen gara dena neurrian egiten. Orain beste konturik ez dudala aipatzen didate baina haiek bultzatu ninduten, haien oparia izan zen. Ez zuten uste ordea horrenbestekoa izango zenik...

Bertsolari kuttunena?

Ez dut esango. Hori niretzat bakarrik dut.

Gogoan duzun saio berezirik?

BECen, saioa bukatu ondoren Andoni Egañak bota zuen bertsoa, boluntarioei eskerra eman ez, barruraino sartu zitzaidan. Egindako lan guztia horrekin ordainduta dago. Bertan jende askok lan egiten du boluntario gisa; ni azkena sartutakoa izan-

go naiz baina barruraino sartu zitzaidan.

Bertsozale amorratua, gai-jartzaille lanetan ere ibilitakoa ... bertsolaria ere ba al zara?

Ez. Ez dut abileziarik. Kamioian noala batzuetan saiatzen naiz baina gero nahastu eta ezin jarraitu... Hitzak ez zaizkit ideiekin bat etortzen eta horregatik nahiago izaten dut dakitenean esku uztea.

Saltsa behin baino gehiagotan erabiltzen duzun hitza da. Saltsero bezala definituko al zenuke zure burua?

Hori askotan entzun dut. Noan tokira noala "perejil de todas las salsas" esaten didate. Normalean, bertsolaritza edo euskara lotura dagoen tokian egoten naiz. Etxetik kanpo egun asko ematen ditut, urruti nagoen garaian euskal kantak entzutea zoragarria da. Euskal abestiek orduan hartzen dute benetako balioa. Kanpoan nagoen garaian, etxera abiatzen naizen garaian, hemengo abestiak jarri -Lurdes Iriondo, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Mikel Laboa- eta kilometroak gustura egiten ditut.

Duela 30 urte, gogoan dut bazkari ostean jende guztia kantuan eta bertsoan aritzen zela. Hori galduta dago. Gaurko gazteek ez dakizkite euskal abestiak, ingelesak ordea bai. Ez dakit gaurko gazteek gerora abesti horiei bere garrantzia ematerik lortuko dugun. Etxean euskal abestiak askotan jartzen ditut, nire seme-alabek ezagutzen dituzte baina buruz ingelesak edo erdarazkoak ikasten dituzte. Bertsozaletasuna seme-alabei ez diet zipriztindu. Ni horren zalea ikusita haiek atzera egingo zuten... Erakusten saiatzen naiz, baina ezin ditut derrigortu.



Txarli Gesteira
Blogaria
txarli/berriketan.info

Musikak ere badu bere tartearen sarean. Musika entzun, ekitaldien agenda kontsultatu, audioak deskargatu, partekatu... aukera asko ditugu sarean. MusikaZuzenean (www.musikazuzenean.com) webgune interesgarria da zuzeneko musika atsegin duen ororentzat.

Musika sarean

Koldo Otamendi "Kojo" Andoaindarrak dago webgune honen atzean. Atari honetan, Euskal Herriko aretoetan eskaintzen diren kontzertuen berri ematen dute, areto handi nahiz tabernetan, musika talde handi nahiz txikiek, denek dute bere tartearen webgunean, eszenatoki eta musika-talde txikiei arreta berezia eskainiz. Kontzertuen iragarpena ez ezik, pasatako kontzertu eta ekitaldien kronikak ere izaten dira bertan. Aipatu webgunean hainbat argazkilarien argazkiak ere topatuko ditugu eta zuzeneko emanaldien irudiak ikusi ditzakegu.

Gaur egungo Euskal musika eszenaren erakusle bihurtu dugu beraz MusikaZuzenean webgunea. Proiektu irekia da, bertan "parte hartu" atalarekin topatuko gara, honela argazki edo bideoak bidali eta publikatzeko aukera izango dugu, kontzer-

tu baten berri eman edota kronika bat idatzi dezakegu.

Ekaitzaldi (<http://ekaitzaldi.blogspot.com/>) ere musikarekin lotutako bloga dugu. Kasu honetan, diskoak deskargatzeko aukera ematen digu, batzuetan gainera, deskargatu aurretik kantu bat edo bi entzuteko aukera ere eskaintzen du. Gainera, disko bakoitzaren kritika irakurri ahal izango dugu deskargatu aurretik, disko beraren informazioa, grabazio data, ki-deak, taldearen informazioa eta gehiago erakusten ditu (euskaraz nahiz gazteleraz). Euskal Herriko musika topatuko dugu batik bat. Arrazoi honengatik, taldeek publikatutako disko berriak, argitaratu bezain pronto, bertan zintzilikatzea komeni zen edo ez galdetu zuten. Euskal taldeen merkaturak zein den jakinda, dendetan bere ibilbidea egin eta gero publikatzea plan-

teatu zen, baino zenbatekoa izan behar du denbora tarte horrek?

Gauzak horrela, egun, ehunka disko ditugu Ekaitzaldi blogean. Musika estiloaren arabera sailkatuta: tango, punk-rock, fanfarre, surf instrumentala, folk, txalaparta, eta abar luze bat.

Azkenik, beste blog baten berri emango dizuet. Punk-Rock 77-80 bloga da, (<http://punkrock77-vomito.blogspot.com/>). Kasu honetan, Euskal Herriko mugetatik kanpoko taldeak ere topatuko ditugu eta gazteleraz egon arren, gure herrietako eszenatoki gainean maiz ikusitako taldeen informazioa eta musika eskaintzen ditu atari honek. Kasu askotan, argitaratu gabeko lanak dira, gaztetxe eta lokaletan grabatutako maketak, edo zuzenekoak, "relikiak". Honek ere, Ekaitzaldi blogak bezala, des-

kargatzeko aukera ematen du. Taldeka sailkatuta dago, bertan, GBH, Killing Joke eta Subterranean Kids bezalako taldeen lanak topatuko ditugu.

Kantuak dioen bezala, Kantatzen duen Herria ez da inoiz hilko!



Pott Keramika: "Gure gizartea k

Ione Urainek eta Maite Salustregik osatzen dute Pott Keramika. Euren sormen lanak Tolosako Aranburu Jauregian ikusgai egongo dira ekainaren 11 bitartean. Galtzaundi mendaroar eta eibartar honekin bildu nahi izan da erakusketa atontzen ari zirela.

Naiara Roldán de Aránguiz

Ezkioltsaso lanerako eta sormenerako kokaleku du 1992an sortutako Pott Keramikak. "Beharrrak" lagundu zien tailerra sortzen, Valentzian ArtePlastikoetan Goi Teknikari -Keramika artistikoa- ikasketak burutu ostean. Bertako udalak lokal bat utzi zien ume zein helduei klaseak eskaintzearen truke. Ordutik bertan lanean dihardute "eskuz egindako modelo eksklusiboak" lantzen keramikagile garaikide hauek.

Bisitariak Aranburu Jauregian ekainaren 11 bitartean Ione Urainen eta Maite Salustregiren lanek sortutako zirrarez gozatze-ko aukera izango du. Erakusketari 'Zipristin' deituriko atalarekin hasiera ematen zaio, honetan artistek koloreekin jolasten dute forma primarioak erabiliz. Maitek zehaztu moduan: "mugimenduak eta konposizioak bilatuz gure inguru eta gizartea koloreztatu nahi genuen; oso grisak bihurtzen ari gara euskaldunak".

Pott Keramikak eskuarki lur koloreak, kolore zaharrak, esmalte gabekoak landu badiu ere, oraingoan kromatismoari eman nahi izan dio garrantzia: "kolorea behar dugu, horrek ematen digu energia". Ko-

launaldiren arteko transmisioari garrantzia emanez, entzuten eta ematen jakin izatea, hartu-ema-na", laburbiltzen du Maitek. Hau da, egitasmo honek "komunikazioaren, bilketaren, entzutearen, transmisioaren beharra azaldu nahi du, ahozko eta belaunaldiko tradizioa".

Aranburu Jauregiko zirrikituek gainera Maite Salustregiren ("Harrizko paisaiak" eta "Proiekzioak") eta Ione Urainen ("Hesiak eta langak") bakarkako lanak plazaratzeko aukera ere eman die: "areto bakoitzak bere nortasuna du eta guk horrekin jolastu egiten dugu", dio Ionek. Maitek gaineratuz: "areto hau zoragarria da, areto bakarra beharrean asko dira, erakusketa atalka ikustea



koloreztatu nahi dugu”

ahalbidetzen du, mugimendua sortzen du, guk lantzen ditugun gaiak azaleratuz; espazioa eta bolumena”.

Bi artisten artean erakusketak prestatu ahal izateko nahita nahiez adostasuna egotea beharrezkoa da. Erantzunak emateko garaian antzematen da aspalditik elkarrekin lanean aritzen direla: “oso pertsonalitate ezberdinekoak gara baina urte asko daramagu lanean elkarrekin. Poliki-poliki landu dugu”. Tailerrean

enkarguak jasotzeko orduan ere elkarrekin lantzen dituzte, bakoitzak bere ikuspuntua bota eta ondoren adostasunerako beta topatuz.

Keramika, beste edozein arte adierazpenen gisa, bakarka lanean aritzeko “diziplina gogorra” dela aitortzen dute. Horren aurrean “bata bestearen laguntzailer” bihurtu dira urteen poderioz.

Oinarrian ofizioa badago ere Pott Keramikak artea egiten du, kreatibitate eta sormena landuz.

“Beharren arabera” sortzen dute, Maitek dioen modura: “sortzeko garaian oso libre sentitu behar gara”, ondoren biek abiapuntuan bat etorri gero bien arteko elkarlana lantzen jarraitzen dute.

Tolosan ikusgai dagoen erakusketa honetan lanik berrietatik abiatuta atzera egingo du bisitariak Maite eta Ioneren lanen baitan, argi ikusiz gainera lanak batak besteari tiraka sortu dituztela. Ekainaren 11 bitartean Aranburu Jauregian ikusgai. ☺

Saldias Miguel

**CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

N. D.G.S. J.1759

Bizi-asegururak
Kotxe-asegururak
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegururak
Denda-asegururak
Erretiroak
Inbertsio fondook

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoo)
www.saldias-miguel.com

EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANINGITZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

imk

formazio zikloak
erdi eta goi mailako zikloak
nekazaritza - itsas-arrantza

Aurrematrikula

ekainaren 1etik 10era

Natura lanbide?
Zatoz Itsasmendikoira!

Nekazaritza eta itsas-arrantzarekin erlazionaturako lanbideetarako prestakantza praktikan eskaintzen dizugu.

www.itsasmendikoi.net

	ERDI MAILAKO ZIKLOAK	GOI MAILAKO ZIKLOAK
IMK ARKAUTE (ARABA)	LORAZANTZA ETA LORADENDA NEKAZARITZA EKOIZPEN EKOLOGIKOA	NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO ENPRESEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA
IMK DERIO (BIZKAIA)	LORAZANTZA ETA LORADENDA NEKAZARITZA EKOIZPEN EKOLOGIKOA	NATURA ETA PAISAI BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA
IMK FRAISORO (GIPIZKOA)	LORAZANTZA ETA LORADENDA NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZTA PRODUKZIOA	NATURA ETA PAISAI BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA
IMK PASAIA (GIPIZKOA)	ARRANTZA ETA ITSAS GARRAIOA ITSASONTZIETAKO MAKINEN ETA INSTALAZIOEN OPERAZIOA, KONTROLA ETA MANTENTZE-LANAK	NABIGAZIO, ARRANTZA ETA ITSAS GARRAIOA ITSASONTZIETAKO MAKINEN ETA INSTALAZIOEN KUSKAPENA ETA KONTROLA

irakurri entzun Ikusi

Estatu etnozidaren kontra
Joxe Manuel Odriozola

Munduan 6.000 hizkuntza inguru daudela diote adituek, eta gehienak betiko galduko direla mende hau amaitu baino lehen. Biodibertsitatea denok goratzen dugun garaian, gizadiaren kultur aniztasunari historia osoan egin zaion sarraskirik gordinena ari gara geure begien aurrean ikusten, boterearen axolagabezia osoaz, edo haren konplizitate ezinbestekoaz.

Lehen lerroan
Itziarren semeak

Gaur egungo egoera politikoaren aurrean gertatzen ari denaz abestu nahirik, maitasuna eta borroka uztartzen dituzten soinu berriekin datoz berriro ere taldearen hastapenetik egin duten bezala. Lucio Urbibia, Laboa eta Oteiza dira euren heroi-antiheroiak titiritero koadrila honentzat.

Mundu hobe batean
Susanne Bier

Anton medikua da. Bere denbora Danimarkako herririka atsegin baten eta Afrikako errefuxiatu-eremu baten artean banatzen du. Oso mundu desberdinak dira biak eta bertan egokitu zaie berari eta bere familiari mendekuaren eta barkamenaren artean aukeratu beharra.

Maiatzaren 20tik ekainaren 3ra bitarteko

hitzorduak

Antzerkia

Poltsiko Antzerki Lehiaketa

Maiatzak 20, ostirala. Adunako Asvinenean, 22.30ean. 4. Sailkapen eguna. Anti-ero, Total Training chair, El leon y la cigala, Sorginkeriak, La década, Florencio Galdino eta Belleza lanak. Artista gonbidatua: Zizgana, dantza garaikidea eskainiko du.

Maiatzak 27, ostirala. Adunako Asvinenean, 22.30ean. 1. Finalurrekoa. Artista gonbidatua: Txalagore musika taldea.

Ekainak 3, ostirala. Adunako Asvinenean, 22.30ean. 2. Finalurrekoa. Artista gonbidatua: Diego Calavia magoa.

Angel magoa. Haurrentzako magia. Maiatzak 20, ostiralean. Abaltzisketako Kultur Etxean, 17.00tan.

Txapin festa

Maiatzak 21, larunbata. Tolosako.

Musikaria

Tolosako Eduardo Mokoroa Musika Eskola.

Musika lurrinak espiritua elikatzeke. Maiatzak 23, astelehena. Klarinete laukotea.

Da-daiko hirukotea. Maiatzak 24, asteartea. Perkusio taldea.

Hariots. Maiatzak 25, asteazkena.

3B Dixieland. Maiatzak 26, osteguna.

Baldi. Maddi Oihenart. Maiatzak 27, ostirala. Tolosako Topic Aretoan, 20.30ean. Maddi Oihenart euskal musika herrikoia ahotsa, Zuberoako abesteko modua ordezkatu eta aberas-

tu egiten du. Hari Biru bakar-ka argitaratutako lehen disko arrakastatsuen ondoren, proiektu berri eta magiko batekin datorkigu orain, Juantxo Zeberio musikagile eta pianista tolosarrarekin batera: Baldi.

Tolosako Banda eta Kup Taldea. Maiatzak 28, larunbata.

Udaberri Dantza Taldea + Tolosako Ikasleen Banda. Maiatzak 29, igandea.

Dantza

Dantzari Txiki eta Alurr Eguna. Maiatzak 28, larunbata. Euskal Herriko herri ezberdinetatik etorritako dantzariak hartuko dute parte Ibarran antolatutako festan.

Kontzertua

Bokanada eta Eratu. Maiatzak 20, ostirala. Tolosako Bonberenean, 22.30ean.

Estricalla, The Capaces eta Zink. Maiatzak 21, larunbata. Bonberenean, 22.30ean.

Cobra eta Trumbo. Maiatzak 27, ostirala. Bonberenean, 22.30ean.

Emon Taldea. Maiatzak 28, larunbata. Anoetako Gaztetxean.

Gipuzkoako bertsolaritza txapelketa

Sailkapen Fasea. Maiatzak 28, larunbata. Amezketako Kultur Etxean. 11.30ean, Ibai Esoain, Mikel Olaizola, Joseba Barandiaran, Gorka Etxeberria, Iñaki Apalategi eta Beñat Iguaran.

17.30ean, Andoni Otamendi, Andoni Goitia, Iñigo Izagirre, Alaia Martin, Eñaut Uriarte eta Eneritz Arzallus.

Erakusketa

Tolosa&Co dendek naturaren inguruko argazkiak erakusgai. Maiatzak 31 bitartean. Argazkilariak: Jose Antonio Abaigar, Miguel Cortes eta Josetxo Gabarain.

GKo galeriako eta BOX.A Arte Elkarteko artistek eskainia. Naturaren argazkiak, herriko argazkilari amateurrek eginak, adierazpideen eta konposizio plastikoaren adierazpen bateratutaz.

Jose Benito Ruiz. Argazkigintza erakusketa. Giza izaera eta izadia. Ekainak 11 bitartean. Tolosako Aranburu Jauregian. Naturaldia ekimenak antolatutako argazki erakusketa. Paisaia magikoen, izaki duinen, beste garai batzuetatik bizirik iraun dutenen eta abarren mundu bat.

Pott Keramika. Zipristin. Ione Urain eta Maite Salutregi. Ekainak 11 bitartean.

Hitzaldia

Nekazaritza ekologikoa. Ekainak 1, asteazkena. Inazio Urangak eskainiko du Berastegin, Muñagorri eskolako Beasti Guraso Elkarteak antolatuta.

Maiatza borrokan

Maiatzak 20, ostirala. Kontzentrazioa, Tolosako Trianguloan.


Maiatzak 10-20. Haima. 10 egunetan saharai talde bat Tolosako Trianguloan ezarritako haima biziko da.

Zinea

Mundu hobe batean. Leidorren. Maiatzak 28, larunbata. 19.30ean. Maiatzak 29, igandea. 22.00tan. Maiatzak 30, astelehena. 20.30ean.

Festa

Garai bateko Alegia II. Maiatzak 29, igandea. Alegian. Herri bazkaria egingo da, txartelak salgai maiatzaren 24a bitartean Iskiñan, Jubilatuenan eta Kultur Etxean.



Irurako kultur astea

Maiatzak 20, ostirala. 17.30ean Marrazkiak plazan, haurren marrazki lehiaketa. 22.00tan Bideo proiektzioa portikoan kaleko zine emanaldia, "80 egunean" filma. 22.30ean Mus Txapelketa zaharretxe tabernan, final erdiak eta finala.

Maiatzak 21, larunbata. Ikastolaren Eguna 2011.

Maiatzak 20 bitartean. Eskulan, bolillo eta tailako ikasleen lanen erakusketa Kultur Gunean, 17.00-19.00 bitartean.

Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuertarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionatutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Euskara ikastaroa	2011/05/23	40
Internet + e-administrazioa	2011/05/23	20
Elektromekanikako langilea	2011/05/24	150
LinkedIn	2011/05/26	2
Orientazioari buruzko Jardunaldia	2011/05/30	3

Ikastaro gehiago ekaina bitartera: informatika, elektrizitatea, mekanika, etabar.

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com
Webgunea: www.ikastn.com

Goardiako farmaziak

Ostirala, 20 Olarreaga I. (Korreo kalea, 2) Tolosa	Asteazkena, 25 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Astelehena, 30 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
Larunbata, 21 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	Osteguna, 26 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Astearte, 31 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa
Igandea, 22 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Ostirala, 27 Ugarte M ^o T. (Euskal Herria, 46) Ibarra	Asteazkena, 1 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa
Astelehena, 23 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Larunbata, 28 Azpiroz L. (Amaroz 9) Tolosa	Osteguna, 2 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa
Astearte, 24 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	Igandea, 29 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Ostirala, 3 Ugarte M ^o T. Euskal Herria, 46 Ibarra

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	Amarozko dispensarioa
Altzo	943 654 737	Asunzion klinika
Medikua	943 652 339	(Iarrialdia)
Anoeta-Alkiza-Hernalde	943 889 003	San Kosme San Damian
Medikua	943 683 361	geriatrikoa
Baliarrain	943 681 134	Udaltzaingoa
Medikua	943 683 361	Ur eta Argia (Tolargi)
Berastegi-Elduain	943 683 361	Ur zerbitzuak (aberiak)
Medikua	943 683 361	Urreemendi egoitza
Bidegoian	943 681 134	Larrialdia, Suhiltzaileak
Medikua	943 681 134	DYA
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 672 411	Gurutze Gorria
Osasun etxea	943 672 411	Ertzantza
Ikaztegieta	943 653 329	Tolosa Gasa
Medikua	943 690 720	Lizartza
Irura	943 650 931	Medikua
Osasun zentroa	943 006 800	Orendain
Tolosa	943 650 931	Medikua
Anbulatorioa, Iarriald.	943 006 800	Orexa
San Esteban, hitzordua	943 006 800	Medikua

Galtzaundi 344
11ko maiatzak 20

Errotulazioa & inudia
Vicente
www.rotulosvicente.com

943 69 02 94
taller@rotulosvicente.com
Laskar balera 25, 1-04 atea
20271 Irua (Gipuzkoa)

NISSAN

**SANTA
LUZIA
GARAJEA**

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoio nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfontabrak
etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886 - 943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259 - 943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615 - 943 671 149

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta txerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingelesek klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako tituluak daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikoko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubini. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berri-tua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125

• Bikote euskalduna baserri edo borda batean alokairuan jartzeko prest. 652 715 800

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m² eta erreforma egiteko. 620 129 295

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldea, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokaldea, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tf: 686969112



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Maitasunean jarrera argitzeko garaia iritsi da. Ez ezazu zure ekonomia zortearen mende utzi. Lanean aukera berriak zabalduko dira. Alergia kontuetatik ez zara libratuko udarako oporrak bitartean.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Maitasun kontuek itxura ona dute. Ahal izanez gero aurreztu ezazu, gastu handiko bolada dator. Kontuz lanean paitzen ari zaren estresarekin. On egingo dizu egun batzuk naturan igarotzeak.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Ez zaitez maitemindu komeni ez zaizun pertsona horrekin. Ekonomikoki egoera egonkorra bizi duzu, baina laneko kontuei dagokionez laguntza eskatzea gomendagarria litzateke. Azala zaintzea garrantzitsua da, gehien bat udaberrian.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Bikoterik gabe egonez gero ez ezazu egoera behartu, benetako sentimenduak behar direnean azalduko dira. Kontuz ibili eskatuko dizuten mailegu horrekin. Lan kontuetan gomendio eske azalduko zaizkizu, lasai azaldu zure iritzia.



leo

Uztailak 23-Azutuak 22

Seme-alabei kasu egin iezaiezu, zure beharra dute. Proiektu berri batean murgiltzera zoaz, ez iezaiezu zure lana besteei utzi. Kirola egiteak ondo egingen dizu, gozatu horretan.



virgo

Azutuak 23-Irailak 22

Ez eskatu besteei zu emateko prest ez zaudena. Kolokan zauden arazo horiek ekonomikoki galerak sorraraziko dizkizute. Lanean egoerak onera egingo du, saiatu lo gehiago egingen.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Ekonomikoki ez ezazu errefusatu familiaren laguntza. Batzuetan zaila suertatzen da lan giro berrietara egokitzea, baina hurrengo astetik aurrera dena errazagoa izango da. Ez zaitez ezkorra izan, osasunean bere eragina izaten du eta.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Maitasun kontuetan duzun laguntzaile hori ez da batere zintzo jokatzeko ari. Galdutzat zenuen dirua agertuko da. Zortea aldeko izango duzu, bereziki azterketa edo oposaketetan.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Maitasunean komunikazio ezak bere eragina izango du, gaizki ulertu bat baino gehiago jasango duzue. Zure ekonomiarik ez dio batere onik egingo jokoan hasteak.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Bikotearekin asteburu pasa joan zaitez, beharrez zaudete eta. Datozen egunotan lagun batek ekonomia gomendio ona emango dizu, adi egon zaitez. Lanean egindako akatsa onartzeak prestigioa emango dizu.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Ez ezazu iraganean pentsatu, orainan eta geroaldian baizik. Barkatu aurretik, bestearen zintzotasuna egiaztatu ezazu. Osasun kontuekin itsutuko zara, ez zaitez larritu.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Traizioa inguruan duzu. Ez itzazu kontu ekonomikoak besteen esku utzi. Lan eskaintza berriak azalduko dira. Osasunean dena primeran doa, ez ezazu gauza arrarorik pentsatu.





APAIZETXEA SALGAI

ASTITZEN (NAFARROA)
TOLOSATIK 20 KM

PREZIOA 120.000€

SALMENTARAKO SOBRE HERTSIA AURKEZTU

AZKEN EGUNA EKAINAREN 14A

TEL.: 648503905 / 638739575

SUPER EKO
SUPERMERKATUA

*Oinezkoen eremua
Erosketak etxera
eramateko zerbitzua*



*Enkarguak etxera
eramateko izena emanda,
zerbitzua dohainik*

Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa



**BATU
GAITEZEN**
GIPUZKOAK AURRERA EGITEKO



www.gipuzko.com

HILETAREN BALIOA

Antzinako Egipto

70 EGUN behar izaten ziren gorputz bat baltzamatzeko

2,3 MILIOI

harrizko bloke erabili ziren piramide handian



6.000 €

kostatuko litzateke gaur egun gorputz bat baltzamatzea

3.500 GAUZA

balio handiko aurkitu zituzten Tutankamonen hilobian

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoltzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren **Hileta Zerbitzu Packak** eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

www.funerariavascongada.com
24 orduko zerbitzua: 902 402 900

25 urte
TOLOSAN

